



zerbikas<sup>en</sup>  
7 gidak

Ikasketa eta zerbitzu solidarioa

Adineko pertsona  
**AKTIBOAK**

Egilea:

**Rafael Mendía**

Aholkularitza eta berrikustea:

**ZERBIKAS Fundazioa**

**HARTU EMANAK elkarte**

Editorea:

**ZERBIKAS Fundazioa**

Laguna kalea 5, behera

(Harrobi plaza).

48003 Bilbo

Tel: 618 159 269

info@zerbikas.es

www.zerbikas.es / www.zerbikas.eus

**HARTU EMANAK elkarte**

Erronda kalea z/g 3. solairua

(5. zenbakiaren parean).

48005 Bilbo

hartuemanak@euskalnet.net

www.hartuemanak.org

Diseinua:

**Arantza Lizarralde**

lizarralde.arantza@gmail.com

ISBN: 978-84-617-5528-8

L.G.: BI-106-2017



Aitorpena-Ezkomertziala-Berdinpartekatua

(by-nc-sa): Ez da onartzen Komertzio erabilerarik, ez jatorrizko bertsioarena, ezta, izan daitezkeen deribazioena eta hauen banaketa jatorrizko obraren lizentzia berberarekin egin behar da.

1. “P+” (adineko pertsona aktibo solidarioa) al zara? 4
2. Geure bizi proiektua eraikitzea  
adineko pertsona aktibo solidarioak izanik 6
3. Lau ideia gako neure bizitzari zentzua emateko 7
4. Adineko pertsona aktibo solidarioek  
gizarte onurako ekimenak eramaten dituzte aurrera 9
5. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa,  
zahartze aktiboa eta bizitzan zeharreko  
ikaskuntza aberasteko proposamena 12
  - ZER DA Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa?
  - Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuak aurrera eramateko aukera eskaintzen duten LAN ESPARRUAK
  - Elkarrekin egiteko BIDEA
  - Zein ikaskuntzari buruz ari gara hitz egiten IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOKO proiektuetan?
6. Aurrera begiratzea 27
7. Baliabideak 28

## AURKEZPENA

---

*Zerbikas Fundazioak* eta *Hartu Emanak elkarteak* gida praktikoa haur aurkezten dugu, adineko pertsonen, elkartasun proiektuei baliatuz, beren-geure gizarte ingurunean duten presentzia-partea hartzea-ikaskuntza sendotzeko prestatu duguna.

Gida praktikoa haur ZUZENEKO baliabide egokia dela uste dugu elkarrekin egiten ari garen bide honetan beste urrats bat egin nahi duten pertsona, talde, elkarte eta erakunde guztientzat, "elkarteari zerbitzu bat eskainiz, ikasteko aukera" bilatzen dugulako.

"Adineko Pertsona Aktibo Solidarioei" buruzko gogoeta baten ondoren, "Adineko pertsona aktiboek gizarte onurako ekimenak eramaten dituzte aurrera" izeneko atal bat idatzi dugu. Esparru horretan, lau ideia nagusi azpimarratu nahi ditugu: **Zahartze Aktiboa, Bizitzan zeharreko ikaskuntza, Belaunaldien arteko ekintza eta Aukera eraldatzailea.** Kontzeptu horien sintesi bat eskaini ondoren, lau ideiak batu eta aberasten dituen proposamen bat aurkeztuko dugu: Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa. Hasteko, Ikasketa eta Zerbitzua zer den azalduko dugu, zein diren bere ekintza esparruak eta **Adineko Pertsona Aktiboek gidatutako proiektuak kudeatzeko 7 urratsak.**

*Zerbikas Fundazioa*  
*Hartu Emanak elkarteak*

# 1 “P+” PERTSONA (ADINEKO PERTSONA AKTIBO SOLIDARIOA) AL ZARA?

Ziur aski, pertsona asko ezagutuko dituzu beren erretiro garaia inguruko beste pertsona batzuei eskaintzen dietenak, edo bidezko arrazoiak defendatzeko konpromisoa dutenak, beti daude prest gizarte arloko edozein ekimenean laguntzeko, edo elkarteari zerbitzuak eskaintzen dizkieten taldeetan hartzen dute parte.

Halaber, zure inguruan ezagutuko dituzu, ziur aski, gizarte izaerako ekintzak aurrera eramaten dituzten erakundeak, batzuetan adineko pertsonak soilik osatutakoak eta beste batzuetan belaunaldi askotakoek osatutakoak.

Pertsona horiei **“Adineko Pertsona Aktibo Solidarioak”, “P+”** izena emango diegu.

- Pertsona horiek konpromiso aktiboa dute beren buruarekin eta inguruarekin, hurbilekoa zein urrunekoa. Gizarteari balioa ematen dioten pertsonak direla esan dezakegu.
- Ez dute baztertzeko norberaren hazkundera, dimentsio guztietan, eta beren osasunaz ere kezkatzen dira, horregatik, ohitura osasungarriak dituzte.
- Beren buruarengan eta beste pertsonengan konfiantza dute.

- Pentsamendu kritikoa dute baina, aldi berean, sortzaileak dira.
- Huts egiten dutenean, akats horietatik ikasi egiten dute, ez dira etsitzen. Eta, batez ere, taldean lan egiteko gai dira.
- Kanpoko saririk bilatu gabe, beren portaerarekin beste pertsona, talde edo gizarte helburu batzuei laguntzen diete.

Ez da oso urrun joan behar horrelako pertsonak aurkitzeko. Ziur aski, zuregandik oso hurbil izango dituzu, zure lagunaren artean, ezagunen artean. Ekimen txikiak edo proiektu handiak bultzatzen dituzte, elkarrekin eta mota askotako taldeetan... Eta baliteke hain hurbil edukitzea, ezen zu zeu ere izan baitzaitezke horrelakoa, nahiz eta aurreko deskribapenean zeure burua guztiz ez islatu.

6 aldiz baino gehiagotan  
BAI edo BATZUETAN erantzun baduzu...  
bilatzen ari ginen pertsona zara.

**Zorionak!!!**  
**ADINEKO PERTSONA AKTIBO**  
**SOLIDARIO bat zara,**  
**hau da “P+” bat**

## ADINEKO PERTSONA AKTIBO SOLIDARIOA, "P+" IDENTIFIKATZEN DUTEN 10 EZAUGARRI


Zeure burua hurrengo jarrera edo portaerekin identifikatuta ikusten baduzu, jarri X dagokion zutabean	Bai	Ez	Batzuetan	Ez dakit
1 Modu aktiboan kezkatzen zara zure buruarentzat eta zure ingurukoentzat ohitura osasungarriak sustatzen.				
2 Zeure buruaren garapenarekin konpromisoa duzu: irakurri egiten duzu, prestakuntza jasotzen duzu, hitzaldietara joaten zara, kultur jardueretan parte hartzen duzu...				
3 Zeure hurbileko ingurunearen garapenarekin (bizilagunak, auzoa, herria...) konpromisoa duzu, baita urrunagoko beste errealitate batzuekin ere.				
4 Zuregana jo daiteke gizarte ekimenetarako eta ekimen solidarioetarako.				
5 Gizartean inplikaturako pertsona zara eta, beste pertsona batzuekin batera, guztion intereseko ekintzetan parte hartzen duzu, errealitatea hobetzeko, nahiz eta gauza txikiak izan.				
6 Beste pertsona batzuekin elkartzeko gai zara elkartearen zerbitzura ideia bat aurrera eramateko (aldarrikapen bat, kaltetuenen aldeko ekintza bat, kultur ekintza bat, aisiarako ekintza bat...).				
7 Inguratzen zaituen errealitatea modu kritikoa aztertzeke gai zara eta ideia sortzaileak proposatzen dituzu errealitate hori hobetzeko.				
8 Gai zara zure adineko edo beste adin batzuetako pertsonekin taldean lan egiteko.				
9 Beste pertsona batzuentzat lagungarri diren portaerak dituzu, kanpoko saririk bilatu gabe.				
10 Zure inguruko pertsonak ideia solidarioekin eta beste pertsona edo elkarte batzuei laguntzeko ekimenekin konpromisoa hartzea lortzen duzu, hobera egiteko.				

## 2 GEURE BIZI PROIEKTUA ERAIKITZEA ADINEKO PERTSONA AKTIBO SOLIDARIOAK IZANIK

Bizi proiektuari buruz hitz egiten dugunean, geure erretiro urteetan zer egin nahi dugun pentsatzen ari gara. Horretarako, geure bizitza osoan zehar metatzen joan garen guztia hartuko dugu kontuan: igurikimenak, itxaropenak, nahiak, gustuak, lehentasunak eta ideiak, eta bizi behar dugun garai honetan horiek guztiak nola garatu ditzakegun aztertuko dugu. Bizi proiektua etapa horretan aurkituko ditugun dimentsio berriek eta aurrera eraman nahi ditugun proiektuek aberastuko dute.

Pertsona batzuek beti egin dute zerbait, lanaz gainera. Edo gizarte gaitan parte hartu edo lagundu dute. Zaretasunak izan dituzte, edo oso argi dute zer gustatzen zaien: irakurketa, mendia, etab. Pertsona horiek guztiak, erretirora –nolabait esateko, inflexio puntura– iristen direnean, abantaila dute beren bizi proiektu berria egiteko orduan.

Adineko pertsona aktibo solidario batek galdera hau egingo dio bere buruari: Zer egin nahi dut erretiro urte hauetan?; Zein zentzu izango du neure bizitzak hemen-dik aurrera?; Nola garatu dezaket neure bizitza hura osatzen duten esparru desberdinetan?; Nola bideratuko





dut neure bizitza, esparru hauetan guztietan: norberaren garapena, bikoteko bizitza, familia, lagunak, gizarte bizitza, elkarteari zerbait emateko eta inguratzen nauena hobetzeko gaitasuna, neure gizarte eta politika konpromisoa,...

Galdera horiek neure bizi proiektua osatzen lagunduko didate. Bizi proiektuak aukera emango dit seriotasunez pentsatzeko zer egiteko gai izan nahi dudan eta, horrela, iparrorratza hori lortzeko norabide egokian jarri ahal izango dut.

### 3 LAU IDEIA GAKO NEURE BIZITZARI ZENTZUA EMATEKO

---

#### Zahartze aktiboa

*Zahartze aktiboak pertsonen bizi kalitatea hobetu nahi du, zahartzen doazen heinean, eta bizitza osasungarri, parte hartzaile eta segurua garatzeko aukerak areagotu nahi ditu. Zahartze aktiboak eskatzen du bizitzaren etapa hau norberaren hazkundeko beste ziklo bat bezala ikustea, eta "urteei bizitza eranstea, ez soilik bizitzari urteak eranstea".*

#### Bizitzan zeharreko ikaskuntza


*Bizitzan zeharreko ikaskuntzak ikaskuntza hezkuntza erakundeetatik edo haur eta gazteen adinetik haratago jartzen du. Izan ere, ikaskuntzak guztion etengabeko kezka izan beharko luke. Bizitzan zeharreko ikaskuntzak aintzat hartzen ditu adin guztiak eta pertsonen elkarrekin bizitzeko dituzten ingurune guztiak, horien artean, familia, gizarte, lana, ikasketak edo aisia. Gainera, demokraziaren hainbat balio indartzen ditu, besteak beste, emantzipazioa edo burujabetzea eta inklusioa.*

## Belaunaldien arteko ekintza

Belaunaldien artean jakiteak eta esperientziak trukatea da adin desberdinetako pertsonen elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko modua. Prozesu oso aberasgarria da, belaunaldiek elkarrekin egiten baitute lan trebetasunak, balioak eta jakiteak eskuratzeko.

## Aukera eraldatzailea

Adineko pertsona aktiboek herritartasun aktiboaren, gizarte konpromisoaren eta elkartasunaren balioak sustatzen dituzte. Gizarte zuzenagoaren, bidezkoagoaren eta solidarioagoaren alde lan egiten dute. Herritar globalak izan nahi dute, ezinbestekotzat ikusten baitute pertsona batzuk besteak zaintzeaz arduratzea, talde batzuk besteak zaintzeaz, gizarte batzuk besteak zaintzeaz, kontinente batzuk besteak zaintzeaz.





# 4

## ADINEKO PERTSONA AKTIBO SOLIDARIOEK GIZARTE ONURAKO EKIMENAK ERAMATEN DITUZTE AURRERA

Beren bizi proiektuetan, adineko pertsona asko ari dira gizarte onurako ekimenak aurrera eramaten. Izan ere, kontua ez da “Elkarrekin EGOTEA”, beste helbururik gabe, baizik eta “Elkarrekin EKITEA”, modu formalean edo informalean elkartzea, geure adineko pertsonekin edo gazteagoekin, belaunaldi arteko erronkan. Elkartu, elkarrekin zerbait egiteko, inguratzen gaituen errealitatea eraldatzeko, askotan errealitate hori ez baitugu gustuko. Ez da neguko jauregian babestu eta inguratzen gaituen gutziaz isolatzea.

Hainbat ekimen interesgarri proposatzen dizkizugu, zure proiektuan eta zure taldekoen proiektuetan laguntzeko.



### Belaunaldien arteko ekintza

- Adineko pertsonak eta gazteak “Belaunaldien arteko filmen proiektuak” egiten dituzte, eguneroko bizitzako egoerak aztertzeko, gizarte errealitate beraren aurrean ikuspegiak eta jarrerak alderatzeko, eta askotariko esperientzia biografikoak partekatzeko.
- “Argazki proiektuak” eginez, adineko pertsonak gazteei jakitera ematen diete nolako zen hiria beste garai batzuetan. Eta horrek gaur egungo gizarteari buruzko eztabaidak sortzen ditu.
- Adinekoak eta gazteak tailer batean elkarrekin ari-tzen dira, ordenagailuekin. Jakiteak eta ikaskuntzak trukatzeko dituzte: gazteek ordenagailu bat zer den eta zertarako erabil daitezkeen azalduko dute; adinekoak luzaroan bizi izan direnen bizi esperientziak eta jakinduria helaraziko dizkiete.
- Adinekoak, hiri eta herri askotan, beren eskubideen eta beren seme-alaben eta biloben eskubideen alde borrokan ari dira. Gizarte eta politikako borroka askotan ari dira parte hartzen, krisi garai hauetan.
- Adineko batzuek “Historia biziko” proiektuak eraman dituzte aurrera eta ikastetxeetan azken hamarkadetako historia kontatzen dute: garai horiek zuzenean bizi izan dituztenen lekukotasunak eta bizipenak eraman dituzte ikasgeletara eta, ondoren, solasaldiak antolatzen dira kontatutakoaren inguruan.
- Adineko pertsona batzuek belaunaldi eta kultur arteko ekimen batean parte hartzen dute, ZURRUMURRUEN KONTRAKO ekimenean, etorkinei lotuta.



## Eskolako jardueran laguntzea

- Adinekoek laguntza ematen diete Haur Hezkuntzako haurrei, ipuinak, istorioak eta asmakizunak kontatuz, eta beren haurtzaroko jokoak eta abestiak erakutsiz.
- Adinekoek Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei eskulangintzako jarduerak erakusten dizkiete, esate baterako, egurra tailatzea, buztina lantzea, aroztegiko lanak...
- Arrantzale eta marinel izandakoek itsasoari eta itsasoko lanbideei buruzko jakiteak eta esperientziak helarazten dizkiete Lehen Hezkuntzako ikasleei.
- Natura ongi ezagutzen duten adineko pertsonak Ingu-rua irakasgaiko edukiak osatzen dituzte, natur ibilbi-deetan lagunduz.
- Adinekoak ikastetxeetara hurbiltzen dira, "Galderak egiten utzi" programaren baitan, ikasleek beren bizi-tzari, balioei, esperientziei eta abarri buruz egiten dizkieten galderak erantzutera.
- Adinekoek elkarrekin aritzen dira naturari eta arte adierazpenari lotutako gaietan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan.
- Adineko pertsonak hezkuntza indargarria eskaintzen diete haurrei eta nerabeei Lehen Hezkuntzan eta De-

rrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta etxeko lanak egi-ten ondoan egoten dira.

- Adineko pertsonak fisikako esperimendu jostagarriak erakusten dizkiete Lehen Hezkuntzako irakasleei, In-guruko eskoletan.
- Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikastetxe bateko adi-nekoek "Bikoteka irakurri" metodologia landu dute eta programa horretan parte hartu dute, eskolan zail-tasunak dituzten ikasleak dituzten ikastetxeetan.



- Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikastetxe bateko adinekoak irakurzaletasuna sustatzeko programa bat landu dute eta ikasleei eta familiei laguntza eskaini diete, testuak elkarrekin irakurriz, testuak antzestu eta bizituz, literatur tertuliak antolatuz, etab.



### Elkartea hobetzeko konpromisoa

- Herriko adineko pertsonak, talde lanean, ibilbide ekologikoak prestatu dituzte herriko haur, gazte eta bizi-lagunentzat, oro har.
- Adinekoek eta gazteek, elkarrekin, antzezlan bat antolatu dute, “Gatazkak ebaztearen” inguruan. Jarrera eta irtenbide desberdinak aurkeztu dituzte, eta bertaratu, haurren, nerabeen eta gazteen arteko solasa eragin dute horrela.
- Adineko pertsona talde batek eguneroko beharretarako josteko lantegi bat eskaini diete nerabeei eta gazteei eta, horrela, beren autonomia garatzen lagundu diete.
- Adineko pertsonak, herriko gazteekin batera, kanpainak sortu dituzte hainbat gairen inguruan, esate baterako, TTIP, errefuxiatuak, zerga paradisuak..., informazioa emateko.

- Adineko pertsona solidarioek herrira etorritako etorkinei laguntzen diete: haien gizarteratzea gainbegiratzten dute, hizkuntza irakasten diete, kudeaketak egiteko orientazioa ematen diete...
- Adineko pertsona solidarioek toxikomania duten pertsonari laguntza ematen diete errehabilitazio eta gizarteratze prozesuetan.
- Mendira joatea gustuko duten adineko pertsonak natur ibilbideak berreskuratzen laguntzen dute.



### Banakako laguntza eskaintzea

- “Mugarik gabeko sukaldeak”. Adineko pertsonak euskal sukaldaritza irakasten diete etorkinei.
- Adineko pertsonak desgaitasunen bat duten pertsonari laguntzen diete: kalera irteten laguntzen diete, egunkaria eta eleberririk irakurtzen dizkiete, haiekin jolasten dira denbora librean dutenean, beren etxera joaten dira konpainia egitera...
- Adineko pertsona autonomoak egoitzetan bizi diren mendeko adineko pertsonari laguntzen diete.
- Adineko pertsonak Elikagai Bankuari laguntzen diote janaria biltzen eta banatzen, eta gazteak ere jartzen dituzte Bankuaren mantentze lanetan eta antolaketan.

## 5 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA, ZAHARTZE AKTIBOA ETA BIZITZAN ZEHARREKO IKASKUNTZA ABERASTEKO PROPOSAMENA

Ikasketa eta Zerbitzua proposamenak Zahartze aktiboaren eta Etengabeko ikaskuntzaren ikuspegiak aberasten eta praktikara eramaten ditu; era berean, Belaunaldien arteko Ekintza eta Aukera eraldatzailea ahalbidetzen ditu. Horrenbestez, Ikasketa eta Zerbitzuak lau alderdi horiek proiektu bakarrean biltzen ditu eta, horrela, XXI. mendeko herritartasunerako ideia gako horiek gauzatzen laguntzen du.

### ZER DA Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa?

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa metodologia bat da eta aukera ematen du elkarteari zerbitzu bat eskaintzeko eta, aldi berean, jakiteak, trebetasunak eta balioak ikasteko. **Bizi prozesu osoan zehar** eraman daiteke aurrera, **gazteenetatik hasi eta heldutasunera**.

**Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa** gizarte onurako prestakuntza proiektu bat da. Ikasketaren eta zerbitzuaren arteko elkarreaginak bien eraginak indartzen ditu. Ikaskuntzak elkarteari eskaintzen zaion zerbitzua hobetzen

du, elkarteak bizi kalitate eta zuzentasun handiagoa izango baitu. Bestalde, zerbitzuak ikaskuntzari zentzua ematen dio, ikaskuntza errealiterara eramaten baitu, ekintzen bidez.



**Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioako proiektuak aurrera eramateko aukera eskaintzen duten lan ESPARRUAK**

Esparru bakoitzean, prozesuan parte har dezaketen erakundeak daude.

<b>PARTE HARTZE POLITIKOA</b>	Auzoan edo ingurune hurbilean parte hartzea sustatzen dute, herritarren konpromisoa errazten dute eta biztanleen bizi kalitate hobetzen laguntzen dute.
<b>ELKARTASUN ETA LANKIDETZA PROIEKTUAK</b>	Giza Eskubideen inguruko sentsibilizazioa lantzen dute, giza eskubideak defendatzen dituzte, eta ekintza solidarioetan eta humanitarioetan parte hartzen dute.
<b>BESTE PERTSONA BATZUEI ZUZENEAN LAGUNTZEA</b>	Beste pertsona batzuei zuzenean laguntzea eta lagun egitea: bazterketa arriskuan dauden taldeak, etorkinak, ezgaitasun fisikoren edo psikikoren bat duten pertsonak, mendekotasunen bat duten pertsonak...
<b>ESKOLATZEAN LAGUNTZEA</b>	Ezaugarri bereziak dituzten ikasleak eskolatzen eta prestatzen laguntzen dute: eskolan zailtasunak dituztenak, berandu eskolatu direnak, etorkinak, etab. Bizi esperientziak partekatzen dituzte Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin, eta esperientzia horiek gure herrialdearen garapeneraren garai historikoekin lotzen dituzte. Bizitzari buruzko “Galderak egiten” uzten diete Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei.
<b>OSASUNAREN SUSTAPENA</b>	Bizi estilo osasuntsuak sustatzen dituzte, norberaren autonomia indartzen dutenak eta mendekotasunari aurrea hartzen laguntzen dutenak.
<b>BELAUNALDIEN ARTEKO TRUKEAK</b>	Adin desberdinetako pertsonak elkar ezagutzea eta jakiteak eta esperientziak trukatea ahalbidetzen dute.
<b>INGURUMENA ETA HERRITARTASUNA</b>	Ingurumeneko hezkuntzan, materialak birziklatzen, natur eta hiri ondarea garbitzen eta kontserbatzen, bide segurtasuna hobetzen, hesiak kentzen, energia aurrezten eta abarretan laguntzen dute. Garapen Jasangarrirako 2030 Helburuekin lerrokatutako jarduerak sustatzen dituzte.
<b>KULTUR ONDAREA</b>	Kultur ondarea gordetzea eta zaharberritzea, kultur tradizioak berreskuratzeko eta zabaltzeko.
<b>NORBERAREN HAZKUNDEA</b>	Norberaren hazkundera sustatzea, hainbat ikuspegitatik: adimen emozionala, espiritualtasuna, beren erretiroa hasi berri duten pertsonen bizi proiektua aurrera eramaten laguntzea eta babestea, eta bestelakoak.

## Elkarrekin egiteko bidea

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuak proposatu nahi ditugu, errealitatea eraldatzeko, zahartze akti-

boaren eta bizitzan zeharreko ikaskuntzaren ikuspegiak aintzat hartuta. Proiektu horiek adineko pertsonak eta taldeek aurrera eramatea nahi dugu, belaunaldien arteko ekintzez baliatuz.



## 1. URRATSA:

Nor gara? Zer nahi dugu?

Zer eskain dezakegu?

- ✓ Beste pertsona batzuk kutsatzea.
- ✓ Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuen talde eragilea osatzea.
- ✓ Dauden plataformak (taldeak, elkarteak...) aprobetxatzea.
- ✓ Erakunde berri bat sortzea edo talde independente gisa aritzea.
- ✓ Geure interesak bateratzea.
- ✓ Geure trebetasunak partekatzea.

Urrats honetan, ahaleginduko gara identifikatzen nor **garen** gizarte onurako proiekturen bat **aurrera eramateko prest gauden pertsonak** eta besteak ere guztion onerako "zerbait" egiteko asmoarekin "kutsatu" nahi ditugunak.

**Lehenengo gune hori aktibatuta**, "Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa bultzatzeko talde" bat osa dezakegu, elkarte, adineko zentro, auzo etxe edo bestelakoetan.

Talde eragile horrek kideen arteko harremanak landuko ditu; elkar ezagutzea bultzatuko du; kideen interesak, trebetasunak eta talentuak aztertu eta bateratuko ditu.

Gure kultur, gizarte, historia, erlijio, **bizi interesak** partekatu egingo ditugu. Baita **geure trebetasunak eta talentuak** ere. Geure lanbide ibilbideari edo geure trebetasun bereziei esker, taldea aberastu ahal izango dugu eta etorkizuneko gure ekintzak indartu.

Urrats hau amaitutakoan, pentsatzeko tarte bat hartuko dugu: Zer ikasi dugu taldea osatzeko prozesu honetan?



## 2. URRATSA:

### Gizarteko edo elkarteko errealitateari begiratzea

- ✓ Beste elkarte edo talde batzuen ekintzak eta ekimenak identifikatzea, nahiz eta berariaz adinekoenak ez izan.
- ✓ Etorkizuneko lankidetzan pentsatzea.
- ✓ Arreta hurrengo arloetan lan egiten duten erakundeetan jartzea: kultura, antzerkia, abesbatzak, poesia, pintura, gizarte arazoak, pertsonen arreta.



Geure ingurune hurbilean edo hirian beste pertsona edo talde **batzuek egiten dituzten ekintzak** identifikatu nahi ditugu.

Ekintza horiek ezagutu nahi ditugu, batez ere etorkizunean lankidetzan aritzeko, edo behar bezala erantzun gabe dauden edo geure interesekoak izan daitezkeen biztanleriaren sektoreak edo gizarte interesak identifikatzeko.

Ingurumenaren alde, kulturaren alde lan egiten duten erakundeak identifika ditzakegu, antzerki taldeak, abesbatzak, poesia eta literatur klubak, pintura taldeak, interes antropologikoak dituzten taldeak, galtzen ari diren kultur alderdiak berreskuratzekoak, memoria historikoaren alde lan egiten duten taldea, aisialdi hezitzailean lan egiten dutenak taldeak, transzendentziaren edo espiritualtasunaren dimentsioa garatzen lan egiten duten taldeak...

Bildutako informazio guztiarekin artxibo bat eta mapa bat egingo ditugu. Gizarte edo elkarteko **ekimenen** geure **"mapa"** izango da.

Urrats hau amaitutakoan, seguru gauza oso interesgarriak aurkitu ditugula eta lehen ikusten ez genituen egoerak agertu zaizkigula. Une batez gelditu eta horren inguruan hitz egingo dugu.



### 3. URRATSA:

#### Geure elkarteko beharrak aztertzea

- ✓ Geure elkartean dauden mota guztietako beharren inguruan pentsatuko dugu. Behar horien inguruan dakiguna identifikatuko dugu: arrazoiak, nor ari den laguntzen, nola lagundu dezakegun...
- ✓ Arretarik jasotzen ez duten beste egoera batzuk aurkitzea.



Ekintza plan batera hurbiltzen joango gara. Plan hori nola landu pentsatu behar dugu.

1. Geure elkartean dauden beharren inguruan pentsatu behar dugu. Zerrenda bat osatuko dugu.
2. Ezagutzen duguna identifikatuko dugu.  
Aukeratu elkartearen beharren bat:
  - Zein da arrazoa?
  - Nor ari da laguntzen?
  - Guk nola joka dezakegu egoera horren aurrean?
3. Arretarik jasotzen ez duten beste egoera batzuk aurkitu.
  - Zer jakin behar dugu elkartearen behar horren inguruan eta zein ari da laguntzen?
  - Nola jakin dezakegu?

Urrats hau amaitzeko, gure elkartearen behar horien inguruan eta ikusi ditugun errealitateen inguruan gogoeta egingo dugu. Nola lan egin dugun ere aztertuko dugu.

## 4. URRATSA:

### Ikasketa eta zerbitzuko ekintza plan bat aukeratzea eta osatzea

#### AUKERATZEA

- Premiazkoena, komenigarriena, taldearentzat egingarriena.
- Adostasun handiena lortzen duen proiektua aukeratzeko akordioetara iritsi behar dugu.

#### EKINTZA PLANA PRESTATZEA

- Proiektuak elkartearen beharrei erantzuten al die? Ez dugu nahi soilik gure beharrei erantzutea.
- Nola lagunduko dio/die gure proiektuak haren hartzaile den elkarteari, pertsonei eta taldeei?
- Nor dago prest proposamena aurrera eramateko?
- Nor arituko da proiektuaren "logistikan"?



## Aukeratzea

Elkartearen beharrak aztertu ondoren, elkarte horrentzat komenigarriena edo premiazkoena dena hautatuko dugu, taldeak egin dezakeenaren neurrira.

Taldeakide guztien artean hitz egingo da, proiektuaren inguruko adostasuna lortzen ahalegintzeko.

## Ekintza Plana prestatzea

Gure lana kokatzeko eta haren egokitasuna ziurtatzeko, komeni da galdera erraz batzuk erantzutea, plangintza zehatza egiten hasi aurretik.

1. Gure proiektua pertsonen eta elkartearen beharretan oinarritzen da, ala soilik geure beharrei erantzuten die?
2. Nola lagunduko dio/die gure proposamenak haren hartzaile den elkarteari, pertsoneri, taldeei...?
3. Zein daude proposamen hori aurrera eramateko prest? Zehaztu egin behar da, jakiteko, benetan, zenbateko indarra dugun. Proiektu bat aurrera aterako da sustatzaileak inplikatzeko badira, konpromisoa hartzen badute. Hala egiten ez bada, ezinezkoa da.

4. Zer espero dugu gertatzea gure lanaren emaitza gisa? Nola jakingo dugu emaitzak lortzen ari garen? Zein adierazle aukeratuko ditugu eta nola erabiliko ditugu hori jakiteko?
5. Nor arituko da proiektuaren logistikan, proiektua edozein izanik ere? Baliteke pertsona batzuek zuzeneko ekintzaren konpromisorik hartu nahi ez izatea, baina oso eraginkorrak izan daitezke gauzak "lortzeko" garaian, materialak eta tresnak antolatzerakoan...
6. Zer ikasi dugu prozesu honetan? Zein alderdiren inguruan sakondu behar dugu, ikasi, prestakuntza gehiago jaso? Taldeko nor lagun gaitzake? Taldetik kanpoko norbaitek lagundu gaitzake?

## 5. URRATSA:

### Plangintza eta antolaketa

- ✓ Zein eskakizun formal bete behar ditugu?
- ✓ Nola banatuko ditugu ardurak?
- ✓ Plangintzarako zenbat bilera behar ditugu eta zein unetan?
- ✓ Lan egutegia?



Kontuan izan behar dugu egiten ditugun proiektu guztietan serioak izan behar dugula, baina ez zurrunik. Gerta liteke prozesuan zehar hasierako proiektua aldatzen joatea, hobeto definituta geratu arte, zehatzagoa izan arte.

Hori gerta liteke eta, hala izanez gero, proiektua taldeko gogoetaren errealitatera egokitu beharko dugu.

Komeni da, halaber, proposamen guztiak eta eztabaidan zehar hartzen joan diren erabaki eta akordio guztiak idatziz jasotzea.

Funtsezkoa da aurrera eramango den lana antolatzea:

- Zein eskakizun formal bete behar ditugu: baimenak, aseguruak...?
- Nola banatuko ditugu ardurak, banakakoak zein taldekoak?
- Zenbat bilera behar izango ditugu –talde osoko bilerak eta talde sustatzailearenak– lana koordinatzeko?
- Zer-nolako prestakuntza behar dugu? Zer-nolako ikas-kuntzak egin behar ditugu eta nola antolatuko dugu? Nork lagundu gaitzake?
- Zein lan egutegi izango dugu? Agenda bat behar dugu, zereginak zehazteko, zeregin bakoitzaren epea adierazteko eta bilera egunak jasotzeko. Egutegi horretan sartu behar ditugu, ahanzi gabe, elkarrekin

egoteko uneak, gogoetarako tarteak, bateratzekoak, prestakuntza...

### IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOKO PROIEKTU BATEN ARRAKASTARAKO 7 GAKOAK

- 1 Hasteko, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu erraz bat aukeratu.
- 2 Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko beste proiektu batzuk ezagutu eta imitatzen ahalegindu, zure errealitatera egokituz.
- 3 Benetako behar bati erantzuten ahalegindu. Ez jarri erdian zure taldearen beharrak.
- 4 Ziurtatu banakako konpromisoak.
- 5 Identifikatu behar diren edo aktibatuko diren ikaskuntzak.
- 6 Izan konfiantza pertsonengan.
- 7 Proiektuaren fase bakoitzean, une batez gelditu eta pentsatu.

### I+ZSKO PROIEKTU BATEN ESKEMA

- 1 Proiektuaren izena eta zerbitzuaren definizio laburra eta argia.
- 2 Taldearen eta konpromisoa hartzen duten pertsonen izenak.
- 3 Gizarte beharraren diagnostiko laburra eta zerbitzuaren xedea.
- 4 Hartzailleak.
- 5 Zerbitzuarekin lortu nahi ditugun helburu ukigarriak.
- 6 Bakoitzak jarri behar dituen jakintzak proiektu hau aurrera eramateko.
- 7 Eskuratu behar ditugun jakintzak proiektua arrakastaz aurrera eramateko.
- 8 Egiten ari garenen inguruan gogoeta egiteko uneak aurreikustea, zergatik eta zertarako egiten dugun eta zer aurkitzen eta esperimendatzen ari garen aztertzeke.
- 9 Egingo ditugun ekintzen edo jardueren deskribapena.
- 10 Lankide izango d(it)ugun erakundea(k).
- 11 Taldearen antolaketa eta lan egutegia.
- 12 Aurrekontua.

## Plangintzari eta antolaketari lotutako beste zenbait alderdi

Proiektu bat aurrera eramateko, antolaketako elementu gako batzuk hartu behar dira kontuan.

### KONTUAN HARTZEKOAK

- *Koordinazio orokorra*
- *Ekonomia*
- *Materiala*
- *Joan-etorriak*
- *Artxiboa, argazkiak eta zabalkundea*
- *Gizarte erakundearekin eta bestelako eragileekin (familiak, herri administrazioa, auzokoak...) harremanak*
- *Dinamizatzailearen zereginak (dinamizatzaile bategi)*
- *Zabalkundea*
- *Gizartea sentsibilizatzea*
- *Jarduera jakin horrek behar duena*

### EZ AHANTZI AURREKONTUA

#### SOR DAITEZKEEN GASTUAK

- *Joan-etorriak*
- *Materialak eta jarduerak*
- *Ekipamenduak eta azpiegiturak alokatzea*
- *Osagarriak (argazkiak, proiektuaren zabalkundea, amaierako ekitaldia...)*
- *Beste erakunde batzuekin sarean lan egiteak sortutakoak...*

#### LOR DAITEZKEEN SARRERAK

- *Kideetatik*
- *Erakundeetatik*
- *Herri administrazioetatik*
- *Enpreetatik...*

## 6. URRATSA:

### Proiektua gauzatzea

- ✓ Proiektuaren proiektzio komunitarioa azpimarratzea.
- ✓ KOMUNIKAZIOari lotutako alderdiak kontuan hartzea.
- ✓ Proiektuaren garapeneko faseetako bakoitzean topaketa bat egitea, iritziak trukatzeko.
- ✓ Ekintza-Gogoeta-Ekintza prozesuko elementuak sartzea.

Hasierako ahaleginak denbora garrantzitsua hartu digu. Horren ondoren, proiektua gauzatzen dela ziurtatu behar dugu. Nola ziurtatuko dugu, ordea? Proiektuak arrakasta izan dezan, gakoa taldekideek parte hartzea, tinkoak izatea, zereginak behar bezala aurrera eramatea, ekintzetako bakoitza prestatzea, eta taldekide bakoitzari behar duen laguntza ematea.

Gure proiektua abian jartzeko prozesu honetan, *ezin dugu ahantzi proiektuaren dimentsio komunitarioa*. Ez da "geure" proiektua. Elkarrearen proiektua da, gure ekintzaren hartzaile izango diren pertsonen, taldeen

eta kolektiboen proiektua. Horretarako, funtsezkoa da proiektua bultzatzeko bazkide ditugun gizarte erakundeekin sareko lanari eustea; era berean, garrantzitsuak dira herri administrazioekiko, familiekiko, auzokoekiko eta lurraldeko beste eragileekiko harremanak.

Zenbaitetan ez diogu garrantzi handirik ematen *komunikazioari*, alegia, proiektuaren zabalkundea jasotzeari. Kontua ez da taldeak egin duena "harrokeriaz agertzea", baina aintzat hartu behar dugu *beste pertsona batzuen eta elkarrearen alde lan egiten duten taldeen* ereduzko lana, agerian uzten baitu **persona guztien konpromisoari eta lanari esker, "bestelako mundu bat posible" dela**.

Proiektuaren fase bakoitzean, truke, komunikazio eta gogoetarako **topaketa txikiak** egingo ditugu. Gure proiektuan Ekintza-Gogoeta-Ekintza prozesuak txertatuko ditugu. Horrela, bai gure proiektua eta bai gure taldea sendotu egingo dira, eta geure buruarentzat aberasgarria izango da.

## 7. URRATSA:

### Proiektua ebaluatzea eta ospatzea

#### ESKAINITAKO ZERBITZUAREN EMAITZAK EBALUATUKO DITUGU

- Lortu al ditugu zerbitzuaren helburuak?
- Jarduerak ongi atera al dira?
- Egoki antolatu al gara?
- Aurrekontura doitu gara edo hartatik desbideratu egin gara?
- Nolakoak izan dira gizarte erakundeeetako harremanak?

#### GOGORA DITZAGUN "IKASITAKOAK"

- Zer ikasi dugu esperientzia honetatik?
- Zein gauza berri dakizkigu orain?
- Zer eman digu gutako bakoitzari, banaka?

#### JAR GAITEZEN AURRERA BEGIRA: ETA ORAIN, ZER?





Proiektua bukatzerakoan, aurrera eraman dugun zerbitzuaren balantze bat egin beharko dugu. Era berean, ikasi dugunaz ere jabetu beharko gara.

Lau gako erabiliko ditugu gure proiektua ebaluatzeko.

### 1. Eskainitako zerbitzuaren emaitzak ebaluatuko ditugu.

- Zerbitzuarekin lortu nahi genituen helburuak lortu al ditugu?
- Ongi funtzionatu al dute aurrera eramandako jarduerak?
- Egoki antolatu al gara?
- Aurrekontura doitu gara edo hartatik desbideratu egin gara?
- Nolakoa izan da gizarte erakundeekiko harremana?

### 2. Gogora ditzagun “ikasitakoak”.

- Zer ikasi dugu esperientzia honetatik guztitik?
- Zein gauza berri dakizkigu orain?
- Zer eman digu proiektuak gutako bakoitzari, zertan heldu gara, pertsona bezala?

### 3. Jar gaitezen aurrera begira.

Eta orain... zer? Puntu honetara iritsita, proiektuarekin jarraitzea erabaki dezakegu edo beste proiektu bati heldu eta lekukoa beste talde bati eman.

### 4. Ospa dezagun bizi izandako esperientzia.

Antola dezagun festa bat esperientziaren amaiera ospatzeko!

Garrantzitsua da adiskidetasuna lantzea eta, horretarako, prozesu osoan zehar topaketa edo bazkari-afari informalak egin ditzakegu.

Era berean, une horiek erabil ditzakegu proiektuaren emaitzak ingurukoei jakinarazteko, gizarte erakundeekin loturak estutzeko, egindako lana ezagutzera emateko, zerbitzuaren hartzailleak gonbidatzeko.

## Zein ikaskuntzari buruz ari gara hitz egiten IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOKO proiektuetan?

Alde batetik, gutako bakoitzak ditugun jakiteei buruz hitz egingo dugu. Jakite horiek, ziur aski, **“eguneratu”** egin beharko ditugu eta, zalantzarik gabe, taldeko beste kideekin **partekatu**. Horixe da Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu baten IKASKUNTZA kontzeptuaren lehenengo dimentsioa. Adineko pertsonen arteko elkarrekiko irakaskuntza.

“Ikaskuntzen” bigarren dimentsio bat ere badago: **eskuratu behar ditudan** ikaskuntza berriak, zerbitzua aurrera eraman ahal izateko.

Eta, “ikaskuntzen” hirugarren dimentsio bat ere aurki dezakegu. Jakite batzuk garrantzitsuak direla konturatzan naiz ikuspegia zabaltzen dudanean, errealitate zehatza gainditzen dudanean eta inguratzen gaituen

errealitateari azalpen historikoak, filosofikoak, soziologikoak, teknikoak, matematikoak bilatzen ahalegintzen naizenean. Askoz ere hobeaz izango da informazio horiek guztion artean, modu kooperatiboan, eraiki baditzakegu edo jakite aditu horiek taldeko pertsonaren edo taldetik hurbil dagoen pertsonaren baten baditu eta gizarteratu eta taldearen eztabaidaren eta kritikaren galbahetik igarotzen baditu.

Ikaskuntza horien ondoan, proiektuan zehar beste batzuk ere sortzen dira, proiektuaren faseetako bakoitzean gertatzen diren gogoeta prozesuetan, gatazken ebazpenean, elkarriketarako geure gaitasunaren garapenean, geure egitekoaren gizarte zentzuaz jabetzerakoan, etab.

Ikasteko modu jakin bati buruz ari gara, ordea. Berdintasunezko elkarriketan oinarritzen den ikaskuntzaz, zehazki. Elkarriketaz baliatuz eztabaidatu, ikasi eta eraikitzen dugu jakintza. Bestela esanda, elkarriketaren bidez, inor besteren gaintik egon gabe, jakintza partekatzen eta eraikitzen dugu, elkarren laguntzaz.



## 6 AURRERA BEGIRATZEA

Gida hau amaitzeko, gure taldeko atekak eta leihoak irekiko ditugu: “zahartze aktiboko” prozesuan gauden pertsonak gara, “bizitzan zeharreko ikaskuntzaren” bidetik goazenak, belaunaldien arteko ekintzan oinarrituz, errealitatea eraldatzeko.

**Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa tresna oso indartsua da gure elkartean proiektu solidarioak aurrera eramateko.** Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak aukera ematen du proiektu beraren baitan etengabe ikasteko, **modu aktiboan eta konpromisoz adinean aurrera egiten lagunduko diguten** ekintzak aurrera eramateko **eta ideia horiek taldean, elkarri eraginez eta bizitza eta helburuak belaunaldien artean partekatuz gauzatzeko.**

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa bizi proiektu bat zehazten joateko modu bat da, erreferentziatzeko bi polo hartuta: norberaren hazkundera eta elkartearen eraldaketa.

## 7 BALIABIDEAK

---

### Zure banakako eta gizarteko bizi proiektua bideratzeko elkarteak

Gure autonomia erkidegoan elkarte askok lagunduko dizute zure bizitza bide solidariotik aurrera eramateko nahiari erantzuten. Guk lau erakunderen informazioa emango dizugu.

**HARTU EMANAK:** Adineko pertsona aktiboen elkarte bat da, gizarte parte hartzaileagoa, demokratikoagoa eta solidarioagoa sustatzea helburu duena.

[www.hartuemanak.org](http://www.hartuemanak.org)

**SECOT:** Boluntario seniorrak dira, profesional kualifikatuak, erretiroa hartu dutenak, aurre erretiroan daudenak edo lanean ari direnak. Espiritu altruistaz, enpresen kudeaketako esperientzia eta jakiteak eskaini nahi dizkiote behar duten orori.

[www.secotbilbao.org](http://www.secotbilbao.org)

**HELDUAK ADI!:** Euskal Autonomia Erkidegoan Pertsona Helduen Parte Hartzeko Plangintza Integral baten alde lan egiten duen gizarte sare bat da.

[www.helduakadi.org](http://www.helduakadi.org)

**NAGUSI LAN:** Abandonu, bakardade edo ahultasun egoeran dauden adineko pertsonen ondoan borondatez egon nahi duten pertsonen osatutako erakundea da.

[www.nagusilan.org](http://www.nagusilan.org)

### ARABAKO ADINEKO PERTSONEN ELKARTEAK

<http://bit.ly/2924Chv>

### BIZKAIKO ADINEKO PERTSONEN ELKARTEAK

<http://bit.ly/1U8A9EV>

### GIPUZKOAKO ADINEKO PERTSONEN ELKARTEAK

<http://bit.ly/29s3Tlj>

## Bibliografia

### ADINEKO PERTSONAK

**MENDIA, R.** (1991). *Animación Sociocultural de la vida diaria en la tercera edad*. Gasteiz: Eusko Jauriaritza.

**MENDIA, R.** (2009). *Hobeto bizitzeko gida*. Bilbo: EDEX.

**MENDIA, R.** (2012). *Pertsona nagusiak, pertsona ekintzaileak: Bizitzan zeharreko gizarte ekintzailetzari buruzko gida*. Bilbo: EDEX.

**RAMIS ASSENS, A.** (2014). *Personas mayores y Aprendizaje-Servicio*. Bartzelona: ZOTIKOS.

**RAMIS ASSENS A.** (2016). *Aprenentatge servei i gent gran*. Fundació Jaume Bofill - Centre Promotor de Aprenentatge Servei. Bartzelona.

**CENTRO DEL CONOCIMIENTO DE FUNDACIÓN EDE.** (2015). *Hacia una Sociedad intergeneracional. ¿Cómo impulsar programas para todas las edades? Guía práctica*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.

**HAINBAT EGILEREN ARTEAN.** (2006). *Los Centros Sociales de Personas Mayores como espacios para la promoción del envejecimiento activo y la participación social*. Asturiasko Printzerriko Gobernua. Etxebizitza eta Gizarte Ongizate Saila.

### HARTU EMANAK ELKARTEAREN ARGITALPENAK

**I JORNADAS.** *Sensibilización para una Acción Social Transformadora de y con las Personas Mayores*. (2003).

**I SEMINARIO – TALLER.** *El Empoderamiento y la Participación Social*. (2004).

**V. JORNADAS.** *Mitos y Realidades de las Personas Mayores*. (2005).

**VII JORNADAS.** *Ciudadanía y participación social*. (2007).

**IX JORNADAS.** *Hacia la búsqueda de nuevos procesos participativos en los colectivos de Personas Mayores*. (2009).

**APRENDIZAJE PERMANENTE.** *Participación social*. (2009).

**X JORNADAS.** *El Envejecimiento activo y relaciones intergeneracionales*. (2010).

**XI JORNADAS.** *Las personas mayores en la intervención socioeducativa*. (2012).

## ZERBIKAS GIDAK

RUBIO, L. (2008). *Zerbikasen gidak, 0 zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioaren sakelako gida*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

PUIG, J. M. ETA MARTÍN, X. (2007). *Zerbikasen gidak, 1. zenbakia: Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

HERNÁNDEZ, C., LARRAURI, J. ETA MENDIA, R. (2009). *Zerbikasen gidak, 2. zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarrizko gaitasunak garatzea*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. ETA MORENO, V. (2010). *Zerbikasen gidak, 3. zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: gizarteratzeko estrategia*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2011). *Zerbikasen gidak, 4. zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: ekiten ikastea, erkidegoa zerbitzatzen*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2012). *Zerbikasen gidak, 5. zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: ikasketako proiektu integratua*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2013). *Zerbikasen gidak, 6. zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: hezkuntzako laguntza*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

CENTRE PROMOTOR D'APRENTATGE SERVEI. (2010). *Ekin I+Zri! Ikasi eta zerbitzatzeari buruzko gida praktikoa gazteentzat*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

BATLLE, R. (2013). *60 jardunbide egoki ikaskuntza zerbitzuan. Xede sozialeko esperientzia hezigarrien inbentarioa*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

HAINBAT EGILEREN ARTEAN. (2013). *GAB gazteak auzoan barrena. Ikasketa eta Zerbitzuko proiektu bat partekatzea eta hiri mailan gauzatzea*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

## Argazkiak

LEHEN ORRIA. Los Barbis.

7. ORRIA. Los Barbis.

10. ORRIA. Hartu Emanak Elkartea.

15. ORRIA. Sutondoan Elkartea.

16. ORRIA. Derio Komunikazioa.

17. ORRIA. Hartu Emanak Elkartea.

18. ORRIA. Derio Komunikazioa.

20. ORRIA. Hartu Emanak Elkartea.

24. ORRIA. Los Barbis.

27. ORRIA. Derio Komunikazioa.

**“Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa eta Adineko Pertsona Aktiboak”  
ZERBIKAS Fundazioaren eta HARTU EMANAK Elkartearen arteko lan-  
kidetza proiektu bat da.**

**ZERBIKAS** Euskal Autonomia Erkidegoan Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa sustatzeko zentroa da. Ekimenak sortzen dituen espazioa da, Ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektuak ahalbidetu eta indartzera bideratutako ekintzak batzen dituen gunea. Zerbitzu publikoa emateko asmoa duen erakundea da. Ez da Administrazioaren menpekoa, eta Ikasketa eta zerbitzu solidarioa berrikuntzarekin eta hezkuntzaren kalitatearekin lotzen ditu. [www.zerbikas.eus](http://www.zerbikas.eus)

**HARTU EMANAK** heldu aktiboen belaunaldi berri bateko kide diren gizon eta emakumeek sustatutako elkarte bat da. Elkartearen helburua da gizarte parte hartzaileagoa, demokratikoagoa eta solidarioagoa sustatzea. Elkartearen proiektuen artean azpimarratzekoak dira belaunaldien arteko ekintzak (jardunaldiak, filmen proiektuak, bizi esperientziak...), etengabe-ko ikaskuntza (kultur gelak, literatur solasaldiak...), gizarte zerbitzuak eta bestelakoak. [www.hartuemanak.org](http://www.hartuemanak.org)

Ekimenaren sustatzaileak:



Laguntzailea:



ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES



Ayuntamiento de  
Portugaleteko Udala

